

BESTELAKO XEDAPENAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4890

183/2016 EBAZPENA, urriaren 27koa, Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearena, mediku eta erizainen guardien arloko eskumenak eskuordetzeko eta, zuzendari gerentea kanpoan edo gaixorik badago edo kargua hutsik badago, eginkizunak egozteko mekanismoa ezartzeko dena.

Komenigarritzat jo da zuzendari gerenteak Arabako Osasun Mentaleko Sareko funtzio eta jarduera batzuk zuzendaritza-taldeko beste erakunde batzuei eskuordetzea, prozedurak arintzeko eta lan-kargak banatzeko, eta, hartara, kudeaketa arinagoa eta parte-hartzaileagoa lortzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko estatutuen 15. artikuluko 2. atalak ezartzen duenaren arabera, zuzendaritzako kideek hartu ahal izango dituzte zuzendari gerenteak euren esku utzitako zeregin eta betekizunak.

Era berean, artikuluko horrek xedatzen du izendatu beharra dagoela zer zuzendaritzak beteko dituen zuzendari gerentearen funtzioak, hura ez dagoenean, lanpostua hutsik dagoenean, edo gaixorik dagoenean; eta, kasuan kasu, dagokion zuzendaritza medikoari egotzi. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Guardia medikoen arloari dagozkion zereginak zuzendari medikoaren esku uztea.

Bigarrena.– Erizaintzako guardien arloari dagozkion zereginak Erizaintzako zuzendariaren esku uztea.

Hirugarrena.– Zuzendari medikoari egozteak Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearen eginkizunak, hura kanpoan edo gaixorik badago edo kargua hutsik badago.

Laugarrena.– Eskuordetze honen arabera sinatzen diren ebazpen eta egintza guztietan, hala jasota geratu beharko da.

Bosgarrena.– Ebazpen hau berton aipatzen den egunetik aurrera egongo da indarrean.

Ebazpen honen aurka gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, Osakidetza Estatuaren 5.2 artikuluan eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 27a.

Arabako Osasun Mentaleko Sarearen zuzendari gerentea,
EGUZKINE DE MIGUEL AGUIRRE.